



ERAKUSKETA

2024


Itsasoaren sekretuak, bere bioaniztasuna eta gizakiontzat duen garrantzia ezagutu

ESKAERA EPEA




ESKAERA EGITEKO KLIK EGIN HEMEN

-INSKRIPZIOA ONLINE BAKARRIK-




Garraioa eta muntaia, Aztertu Programaren esku



Erakusketa 13 panelek osatzen dute, metro bateko zabalera x 2,20 metroko altuerarekin. (gelak 2,5 metroko altuera behar du muntaia egiteko)

- Erakusketa **2 astez** izateko aukera
- Zuentzat **data egokienak** aukeratu, guk egutegian egokitzen saiatzeko (2024ko urritik, 2025ko irailera)
- Erakusketarekin batera **edukiak lantzeko materiala** bidaliko da



EDUKIAK

ERAKUSKETA OSATZEN DUTEN PANELAK

1 GAIA. ITSASOAREN ERAKARGARRITASUNA

Historiaurretik, gizakiak harreman estua izan du itsasoarekin. Lehenik eta behin, kostako sartu-irten txikiekin, itsaski-bilketarekin adibidez. Gero etorriko ziren lehenbiziko ontziak eta nabigatzeko teknika gero eta aurreratu eta konplexuagoak.

Nabigazioa kultura askoren ezaugarri izan da, greziar, erromatar edo bikingoetatik hasi eta euskal ontziek aurrera eramandako balearen ehizaraino.

2 GAIA. EZEZAGUNERANTZ ABIATZEA

Itsasoa bezalako mundu ezezagun eta arriskutsu batek beti eragiten ditu sineskerietan eragina duten beldurrak.

Itsasoarekin lotutako lanbideak beldur eta sinesmenez beteta daude, eta horietako askok gaur egun ere irauten dute ehunka urteren ondoren.

3 GAIA. EZEZAGUNA DENA

Zer dago hor behean? Benetan jabetzen al gara ozeanoen azpian ezkututzen den munduaz?

Gauza bat frogatuta dago: hobeto ezagutzen dugu Marteren azalera gure planetako itsas hondoak baino.

4 GAIA. BIZITZAREN SORRERA

Ura eta itsasoa bizitzaren jatorriaren sorleku eta espezieen eboluzioaren erdigune gisa.

Ozeanoak izan ziren eboluzio-bide guztien erdigune "jatorrizko salda" delakotik. Pixkanakapixkanaka, espezie ezberdinak ingurune urtarra utzi eta lehorrean bizitzera egokitu ziren.

5 GAIA. KLIMA ALDAKETA

Klima-aldaketa da aurretik daukagun erronka handienetako bat (handiena ez bada) Lur planetako biztanle eta arazo horren eragile nagusi bezala.

Temperaturaren igoeraren ondorio asko itsasoan ikusten dira, baita bere korranteetan edo bere oreka trofikoan ere.

Era berean, ozeanoek nabarmen har dezakete parte berotze globalaren ondorioak arintzeko borrokan.

6 GAIA. NATURA KOPIATZEN

Itsasoa ikuspen hutsaz antzeman dezakeguna baino askoz gehiago da. Alde batetik, aurrerapen teknologiko askotarako inspirazio-iturria da (biomimetikaren adibidea).

Gainera, bere ondoan bizi diren pertsonen berezko izaera ematen dien elementua da.

Itsasoa lasaitasuna da, ihesbidea da pertsona askorentzat, haurtzaroaren oroitzapena da, nire herriaren soinua da, etxe usaina da...

